

Oroimenean bizikletaz

Sommer jaunaren istorioa

Patrick Süskind

Ilustratzailea: Sempé

Erein, Donostia, 2007

‘Oraindik zuhaitzetara igotzen nintzen garaian —asko, orain dela asko, urte asko eta urte hamarkada asko, ez nuen metro bat baino askoz gehiago neurtzen, zapatak hogeita zortzikoak nituen eta oso arina nintzen, oso, hegan ere egin nezakeen orduan...’. Hitz hauekin hasten da *Sommer jaunaren istorioa* nobela laburra, baina narratzailea ez da Sommer jaun bitxi hori, ezpada haurtzaroan hura etengabe eta nonahi beti ibilian ikusten zuen mutikoa baizik, mutiko orain gizondua. Oroimena da orain hegan dabilkiona eta oroimenak Catalina neskak xarmanta ekarriko dio gogora, edo Funkel andereñoa —piano irakaslea bera—, edo bere familia, eta horra ondorioa: ‘mundu osoa nazkarrikeria bidegabe, gaizto, zital bat besterik ez zela. Eta besteak ziren txarkeria horren errudun’.

Hala bada, munduko bidegabekeriak estilo xaloan eskaintzen zaizkigu, behin baino gehiagotan irribarre konplizea eraginez; baina denboraren poderioz haiekiko jarrera aldatu egingo du narratzaileak, heldutasunera iristen hasia baita: ‘Metro eta hirurogeita hamar neurtzen nuen gutxi gorabehera, berrogeita bederatzi kilo pisatzen nuen eta berrogeita bateko zapatak erabiltzen nituen’. Nolabait ere bizikleta izan daiteke aldaketa horren ikurra: hasieran mutikoak ez daki ibiltzen, edozein oztoporen aurrean —izan txakur bat, izan oinezko bat— ibilgailutik automatikoki jaitsi beharra dauka, eta gainera harrigarria zaio nola ibili daitekeen bi gurpil ezdeus horien gainean; amaieran, baina, txirrundulari iaioa agertuko zaigu, heldu.

Baina askoz ere gauza gehiago esan behar da istorioa laburbiltzeko ahalegin frustratu honen ondotik. Alde batetik, adierazi behar da liburua, kasualitatez, *Perfumea* euskal itzulpenarekin bateratsu kaleratu dela, baina beherala gaineratu beharra dago are harriagarriagoa dela *Perfumea* nobela gordina eta *Kontrabaxua* antzerki -ezagun- jostarina idatzi zituen egileak *Sommer jaunaren istorioa* itxuraz xalo eta tolesgabea idatzi izana, hain dira gai eta erregistro desberdinak. Baina, izan, hala da, eta, kasualitateak areagotuz, hara non itzulpenarekin batera antzezpena ere eskaini berri zaigun, hain zuzen ere igaro berria den Durangoko Azokan. Baina goazen atalka.

Batetik, esan beharra dago liburua Lourdes Oñederrak itzuli duela, eta itzulpenak ongi jasotzen duela liburuari darion ahozko kutsua —esaldi luzeak, tarteka amaigabeak—, natural garatzen dela, fresko geratzen. Bestetik, gaineratu beharra

dago Jean-Jacques Sempé-ren ilustrazioekin datorkigula eta gutxitan bezala apurto egiten dela gazte literatura berdin ilustrazio eza binomioa. Testu ederra + ilustrazio ederrak + edizio ederra = plazera (plazer horrexek zenbatetan ez ote digun gogora ekarri Bernardo Atxagaren estilo naïf hura —Bi letter, Xola bereziki—; zenbatetan ez ote garen gogoratu Mikel Valverderen ilustrazioekin...).

Baina, esan bezala, liburua ikusi ere ahal izan genuen Durangon. Antza, obra katalanez antzetzua izan da azken hamahiru urte honetan eta Jose Ramon Soroizek euskal oholtzetara ekarri nahi izan zuen, eta baita lortu ere Xicu Masóren zuzendaritzapean. Antzezpena bakarrizketa da, itxuraz, baina Oñederraren itzulpenari distira ateratzen dio eta irakurketan eginiko irribarreak barre algarak bihurtzen dira behin baino gehiagotan. Soroizek bikain eskaintzen dizkigu narratzailearen erregistro desberdinak —haur, heldu...—; eszenografia ere oso egokia da eta, azkenik, Jabier Muguruzaren musikak lagundu egiten du oroimen ariketa horiek biziarazten, bizikletaren orekari eusten (Atxaga aipatu dut arestian, eta hain zuzen ere haren poema bat —‘Iritziak euriaz’— ekarri dute hona, ausardiaz, baina ezin egokiago, narratzaileari ere denboraren joanak nola eragiten dion erakustearren).

Gazte literatura onean eskatxo gabiltzan honetan, oso albiste ona iruditu zaigu honakoa, aukeran, testutik nahiz eszenategitik datorkiguna. Eta testu ederra + edizio ederra + antzezpen ederra = plazer ezin hobea.

Laura Sagastume